

## MODULUAK. Oinarrizko galderak (FAQ)



**Bilboko Hezkuntza Fakultatea (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntza)**  
(Fakultate Batzarrean onartua xxxxx)

**Egileak:** Israel Alonso (Koordinazioaren, Titulazioen Hobekuntzaren eta Graduondoko Ikasketen Arloko Dekanordea), Nekane Beloki (Gizarte Hezkuntzako Koordinatzailea), Laura Del Castillo (Haur Hezkuntzako Koordinatzailea) eta Arantzazu Lopez de la Serna (Lehen Hezkuntzako Koordinatzailea).

## AURKIBIDEA

## 0. SARRERA

2010/2011 ikasturtean Graduak sartu zirenetik, ikasturte guztietan modulu egitura bat eta aurre egin beharko duen diziplinarteko modulu lana garatzen da. Hiru graduetak txostenek diotenez, "irakasgai guztiek ECTS kreditu erdia edo kreditu bat bitartean partekatuko dute seihileko horretako beste irakasgaiekin; irakasleek, ondorioz, diziplinarteko proiektu bat diseinatu eta garatu beharko dute, elkarren artean eta lankidetzan"; horrenbestez, Ikastegiko irakasle guztien irakaskuntza lanaren zati izango da".

Aurrekoa egiteak erronka handia suposatu du, bai eta lan eskerga ere modulu talde bakoitzean, Graduak Batzordetan eta zuzendaritza taldean, bere abiarazteari eta garapenari erantzuteko. Azken urteotan, gai asko landu eta adostu ditugu; baina sortutako zalantzak eta galderak asko izan dira ere. Dokumentu honek gai hauetarako irizpideak ezarri eta akordioak adosteko gida bat izan nahi du, moduluetakoko ikasleentzat zein irakasleentzat. Dokumentua osatzeko, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateak egin duen dokumentua izan dugu erreferentzia. Bilboko Hezkuntza Fakultateko dekanotza-taldeak eta hiru Graduak Graduak eta Modulu koordinatzaile guztiek parte hartu dute dokumentua idaztean.

## MODULU - LANA



### IKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK

#### **1.1. NORI ZUZENDUTA DAGO MODULUKO LANA?**

Modulu diziplinarteko<sup>1</sup> lana ikasle guztientzat planteatzen da, etengabeko ebaluazioa egiten dutenentzat zein azken ebaluazioa egiten dutenentzat.

#### **1.2. LANA EGITEA DERRIGORREZKOA DA?**

Bai, modulu lana edo diziplinarteko lana derrigorrean egin behar da. Horrek esan nahi du, ikasleek egindako lanean gidan agertzen diren pausoak eta lana egiteko irizpideak islatu behar direla.

#### **1.3. MODULUKO IRAKASGAI GUZTIETAN MATRIKULATUTA EGON BEHAR DUT?**

Ez, kasu batzuetan modulu desberdinetan matrikulatu egon

---

<sup>1</sup> Orain arte erabiltzen ditugu bi izenak (MDJ Gizarte Hezkuntzan) eta DAL (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan) bateratzea proposatzen dugu.

ahal da ikasle bat. Kasu horretan, modulu batean hiru ikasgaitan matrikulatuta dagoenean, diszplinarreko jarduera egitea derrigorrezkoa da. Bi modulu aldi berean egin beharko dituzten ikasleen kasuan, irakasgai gehien dituzten moduluko DAL ataza baino ez dute egin behar. Egin beharreko irakasgaien kopurua berdina balitz bi moduluetan, DAL ataza goiko mailako moduluan egingo dute.

#### **1.4. NOLA ERANTZUTEN DIOGU MODULUKO LANAREN PLANTEAMENDU OROKORRARI?**

Lanaren orokortasunari erantzuteko, ezinbestekoa da lanean modulua osatzen duten diziplinen ikuspegi guztiak kontuan hartu eta islatzea (horregatik du diziplinarreko izaera).

#### **1.5. MODULUKO LANA TALDEKOA BADA, GUZTIOK KALIFIKAZIO BERA IZANGO DUGU?**

Gerta daiteke horrela ez izatea. Irakasle-taldeak indibidualizatutako kalifikazioak jar ditzake (egoki ikusten diren irizpideen eta ebidentzien arabera); irakasle-taldeak berak, prozesuaren hasieran, horien berri emango dizue.

#### **1.6. ZENBAT DENBORA GORDETZEN DA MODULUKO LANAREN KALIFIKAZIOA?**

Moduluko lanaren nota kurtso bat mantenduko da.

#### **1.7. ETA MODULUKO LANA DERRIGORREZKOA DA?**

Bai, Moduluko lana egitea derrigorrezkoa da.

#### **1.8. ZER GERTATZEN DA PLAGIOA DETEKTATZEN BADA?**

Automatikoki lana suspendituta dago. Irakasleek ikasgai osoa ere suspenditzea erabaki ahal dute.

#### **1.9. ZER EGIN DAITEKE LORTUTAKO KALIFIKAZIOAREKIN ADOS EZ BAGAUDE?**

Lehenik eta behin, kalifikazioekin batera argitaratuko den errebisio saiora joatea ezinbestekoa da. Aipatutako saio horretan irakasleek emandako azalpenak entzun ondoren, oraindik ere ados ez bagaude, badago erreklamazio bat jartzea. Horretarako, irakasle-taldeak adostutako zuzenketa eraren arabera, kasuistika hauek ezberdindu behar dira:

- Irakasle-taldeak lan guztiak zuzendu baditu: errebisio saioan emandako azalpenak entzun ondoren oraindik ados ez bagaude, ikastegiko Erreklamazio Batzordearen aurrean kexa bat jar daiteke.
- Irakasle-taldeak zuzentzeko beste eraren bat adostu badu: zuzenketan parte hartu ez duten irakasleen balorazioa eska daiteke

#### **1.10. ZER GERTATZEN DA AMAIERAKO EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEEKIN?**

Ikasle hauek deialdi ofizialeko azterketan, moduluko irakasle taldeak planteatutako modulu lanari buruzko jarduera (modulu lana, galdera edo proba ,..) entregatu beharko dute; modulu lanaren garapena egoki jarraitzeko, ikasle hauek etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleei eskainitako tutoretzak baliatu ahal izango dituzte. DAleko Gida konsultatzea derrigorrezkoa da, eta hor agertzen diren epeak eta betebeharra errespetatzea.

#### **1.11. NOLA JOKATU BEHAR DA AZKEN EBALUAZIO SISTEMAREN BIDEZ EBALUATUAK IZATEKO?**

Azken ebaluazioren bidez ebaluatuak izateko, inplikaturako irakasleei etengabeko ebaluazioari uko egiteko eskaera idatziz luzatu beharko zaie (9. astea baino lehen lauhileko irakasgaien kasuan, eta 18. astea baino lehen ikasturte osoko irakasgaien kasuan). Ukoa idatziz egingo da eta horretarako inprimaki ofiziala erabiliko da (3. eranskina ikusi; Fakultateko webgunean ere eskuragarri).

## IRAKASLEEN OINARRIZKO GALDERAK



### 1.12. DALA EGITEA DERRIGORREZKOA DA?

Bai, modula lana edo diziplinarteko lana derrigorrean egin behar da (salbuespen egoerak kenduta, begiratu 1.24. atala).

### 1.13. NOLA BERMATU DALAREN PRESENTZIA IRAKASGAIETAN?

- a) DALa etengabeko eta/edo azken ebaluaziorako erreminta bat izatea.
- b) Nahitaez bete beharrekoa izatea.
- c) DALari dagokion haztatutako ehunekoak jasotzea, irakasgaiaren proba edo jarduera bat gisa.
- d) Irakasgaia bera gainditzeko egin beharra dagoen eta/edo gutxieneko notaren bat lortu beharra dagoen adieraztea.
- e) DAL atazari dagokionez dauden salbuespenak berariaz jasotzea irakasgaiaren gidan eta salbuespen horiek zehazturiko ehunekoetan nola islatuko diren azaltzea.

### 1.14. ESKOLETARA BERTARATZEA EBALUAZIO INSTRUMENTU IZAN DAITEKE?

Ez, 3/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, “klasera ez joateko eskubidea” jasotzen du ikasleen oinarrizko eskubideen artean (41.j artikulua). Xedapen hori garatuz, UPV/EHUko Estatutuek (17.1.i artikulua) eta, zehazki, Ikasleen Arautegiak (2. artikulua, 20. puntua) ondokoa dio: “Eskolara ez joatea, bere horretan, ez da eragozpenik izango Arautegi honen V. tituluan araututako eskubide hau gautzeko” (ebaluazioa).

Ondorioz, ez dago DAL saioetara bertaratzeko derrigortasuna ezartzerik lana gainditzeko; Baina saioaren garapenaren barruan hainbat jarduera antola daitezke eta azken notaren ehunekoren bat esleitu aipatutako jarduereri.

**1.15. IRAKASGAIKO ZENBAT KREDITU ESKAINI BEHAR DIZKIOGU MODULUKO LANARI?**

Oro har, 1,6 kreditu Lehen eta Haur Hezkuntzan eta 1,5 Gizarte Hezkuntzan.

**1.16. ZEIN DA GURE EGINKIZUNA LAUHILABETEKOAN ZEHAR?**

Moduluko irakasleek ikasleei gelan eta gelatik kanpo (tutoretza saioak, etab.) beharrezko laguntza eskaini behar diete modulu-lana edo diziplinar-teko lana egoki gauzatu dezaten.

**1.17. NOLA EBALUATZEN DA MODULUKO LANA?**

Moduluko lana ebaluatzeko Moduluko gidan agertutako tresnak erabiliko dira. Moduluko irakasle bakoitzak tutorizatzen dituen ikasleen lanak ebaluatu behar ditu.

**1.18. ZEIN DA MODULUKO EDO DIZIPLINARTEKO KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEKO EPEA?**

Epea moduluko irakasgaien ebaluazio proben datekin lotuta dago. Lehenengo azterketaren kalifikazioaren argitaratzearen egunerako jarrita eta komunikatuta ikasle eta irakasle taldeari egon behar dira

**1.19. ZEIN BIDE JARRAITU BEHAR DUGU MODULU-LANEN KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEKO?**

Moduluko koordinatzaileak (edo adostutako pertsonak) modulu-kalifikazioak bere eGELAN argitaratuko ditu.

**1.20. NOLA PLANTEATU BEHAR DA MODULU LANEN ERREBISIO SAIOA?**

Irakasle-talde bakoitzak adostuko du nola gauzatu.

**1.21. ZER GERTATZEN DA ERREBISIO SAIOA GAUZATU ONDOREN IKASLEAK EMANDAKO KALIFIKAZIOAREKIN ADOS EZ**



## **BADAUDE?**

Kasu horretan 1.15 galderan zehaztutako prozedurari jarraitu behar zaio.

### **1.22. IKASLEEK MODULUKO LANA SUSPENDITZEN BADUTE, IRAKASGAIA SUSPENDITU BEHAR DUTE?**

Ikasgaia bakoitzaren irakas-gidaren arabera. Ikasgaia gainditzeko derrigorrezkoa denean, moduluren irakasle-taldeak erabaki behar du nola egin behar duen DALa ezohiko deialdian.

### **1.23. NOLA EBALUATUKO DITUGU AZKEN EBALUAZIOA EGITEN DUTEN IKASLEAK?**

Ikasle hauek deialdi ofizialeko azterketan, moduluko irakasle-taldeak planteatutako modulu lanari buruzko jarduera (modulu lana, galdera edo proba ...) entregatu beharko dute; modulu lanaren garapena egoki jarraitzeko, ikasle hauek etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleei eskainitako tutoretzak baliatu ahal izango dituzte.

## KASU BEREZIAK

### **1.24. GEHIENBAT, NOIZ DAGO IKASLEA MODULU LANA EGITETIK SALBUETSIA?**

1. Mugikortasun programetan dauden ikasleak DAL ataza egitetik salbuetsita egongo dira,
2. Graduako ikasleak DAL ataza egin beharko du, beti ere gutxienez modulu bereko 3 irakasgaitan matrikulatua badago. Beste kasu guztietan ikaslea salbuetsia egongo da.
3. DAL ataza egitetik salbuespena dagoenean, irakasgaiaren kalifikazioa lortetik egingo da, DAL atazari dagokion ehunekoa aplikatu gabe.
4. Zenbait irakasgai baliozkotuta edo gainditu gabe izatearen ondorioz, bi modulu aldi berean egin beharko dituzten ikasleen kasuan, irakasgai gehien dituzten moduluko DAL ataza baino ez dute egin behar. Egin beharreko irakasgaien kopurua berdina balitz bi moduluetan, DAL ataza goiko mailako moduluan egingo dute.

### **1.25. ZER GERTATZEN DA EUSKARAZ (EDO GAZTELANIAZ) MATRIKULATUTAKO IKASLEEK IRAKASGAIREN BATEAN TALDE ALDAKETA ESKATZEN BADUTE (GAZTELANIAZKO EDO EUSKARAZKO TALDERA IGAROTZEA)?**

Euskaraz eta gaztelaniaz programa bera denez, ikasle batzuek talde batetik bestera igarotzea eska dezakete. Ikasle horiek matrikularen zatirik handiena hartzen duen hizkuntzako moduluko lana osorik garatu behar dute.

### **1.26. ZER GERTATZEN DA INGELESEZ ESKAINITAKO IRAKASGAIREN BAT EGITEA HAUTATZEN DUTEN IKASLEEKIN (GAZTELANIAZKOAK ZEIN EUSKARAZKOAK)?**

Ikasle horiek matrikularen zatirik handiena hartzen duen hizkuntzako moduluko lana osorik garatu behar dute.

### **1.27. ETA GRADU BAT (HAUR HEZKUNTZA EDO LEHEN HEZKUNTZA) GAUZATU ONDOREN BESTEA EGITEA ERABAKITZEN DUTEN IKASLEEN KASUAN?**

Moduluren batean hiru irakasgaitan matrikulatuta egonez gero, modulu lana edo diziplinarteko lana gauzatu beharko du.

### **1.28. ZER GERTATZEN DA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN KASUAN?**

Beren inklusioa eta garapen pertsonala eta akademikoa, beharrezkoa da ikasle hauen egoera ezagutzea. Egoera bakoitza era zehatzagoan ezagutu ahal izateko, Akademi Antolakuntzako Dekanordearekin (behar bereziak dituzten ikasleen arduraduna) harremanetan jartzea komeni da; GAURrek iragartzen duenean ikasleen kasua komenigarria da, baita ere, moduluetako koordinatzaileak Akademi Antolakuntzako Dekanordearekin harremanetan jartzea.

## **2. MODULUAREN ANTOLAKUNTZA**

### **2.1. NOLA ADIERAZI BEHAR DUGU MODULAN IKASLEEN IZANDAKO PARTE-HARTZEA ETA INPLIKAZIOA?**

Prestaketa, jarraipen eta ebaluazio bileretara joateaz eta horietan parte hartzeaz gain, ezinbestekoa da irakasgaien hezkuntza gidan moduluko planteamendua argi islatzea. Moduluko irakasle guztiek hezkuntza programan moduluko lanarekin lotutako alderdiak esplizitatu behar dituzte. programako zein gai eskainiko dizkioten, moduluko lana egitera entregatzeko zein lan bideratuko duten eta horri lotuta zein ebaluazio irizpide erabiliko dituzten (adostutako irizpideak).

### **2.2. IRAKASLE PARTE HARTZAILE GISA, ZEIN BESTE EGINKIZUN BETE DEZAKEGU?**

1. eranskinean zehaztutako eginkizunak kontsultatu.

### **2.3. ZEINTZUK DIRA MODULU KOORDINATZAILEEN EGINKIZUNAK? ETA GRADUETAKO KOORDINATZAILEENAK?**

1. eranskinean zehaztutako eginkizunak kontsultatu.

## 1. Eranskina. Koordinatzaileen eta irakasleen funtzioak

Titulu koordinatzaileen eginkizunak	Modulu koordinatzaileen eginkizunak	Inplikaturiko irakasleen eginkizunak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Graduako eta Graduondoko Titulazioen Koordinazio eta Hobekuntza Dekanordearekin biltzea.</li> <li>• KOORDINA batzordean parte hartzea. Bere kideak dira Graduako hiru koordinatzaileak, dekanoa eta dekanotza-taldeko ordezkariak.</li> <li>• Modulu koordinatzaileekin biltzea, haiek eskatuta, gairen bat aztertzeko.</li> <li>• Graduako koordinatzailearen, Modulu koordinatzaileen, dekanotzaren ordezkarien, AZP eta ikasleen parte-hartzea duen titulu batzordea dinamizatzea.</li> <li>• Tituluen jarraipen txostenak idaztea.</li> <li>• Kalitate Batzordearen bileretara bertaratzea eta jarraipen adierazleen inguruko datuak eskaintzea.</li> <li>• Titulazioen Koordinazio eta Hobekuntza Dekanordetzarekin batera, moduluaren eta bere irakasgaien irakaskuntzaren gidak aztertzea,</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bileretara bertaratzea, bere presentzia beharrezkotzat jotzen den guztietan.</li> <li>• Aurreko bileraren akta onartzea, dagokionean.</li> <li>• Tutorizazio saiok eta pedagogia asteak programatzea, irakasleekin batera.</li> <li>• Modulua eta modulu-lana ikasleen aurrean aurkeztea.</li> <li>• Erreferentzia izatea ikasle zein irakasleentzat, sor litezkeen gaiei erantzuteari dagokionez.</li> <li>• Moduluaren eta modulu lanaren garapenean egon litezkeen gatazka egoerak bideratzea, Graduako koordinatzailearekin batera.</li> <li>• Moduluko bilerak planifikatzea eta beren deialdia egitea. Bilerak egiteko beharrezkoak diren dokumentu edo materialak bidaltzea.</li> <li>• Bileren garapena egokiro kudeatzea (Ikusi bilera eraginkorrak egiteko jarraibideak, 2. Eranskinean).</li> <li>• Bileren akta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasgaiaren irakaskuntzaren gida idaztea, modulu-lanaren garapenari loturiko alderdi guztiak jasoz.</li> <li>• Irakaskuntza, modulueterako akordioan gidan ezarritakoari jarraiki garatzea.</li> <li>• Modulu-lanak prestatu eta beren jarraipena egiteko bileretara bertaratzea eta aipatuetan parte hartzea. Bileren garapenari laguntzea eta modulu-koordinatzaileen lana erraztea.</li> <li>• Modulu-lanaren garapena hobetzen lagun dezaketen materialak eskaintzea. Akta txandaka jasotzea, irakasle guztien artean.</li> </ul>

<p>modulu lanari loturiko alderdiak jasota dituztela baieztatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Titulazioan dauden gatazka egoerak bideratzea Dekanordetzarekin.</li> <li>• Egindako bileren aktak gainbegiratzea eta bidaltzea.</li> <li>• Titulazioaren gida eguneratzen laguntzea.</li> <li>• Titulazioaren irakaskuntza hobetzeko ekintzen jarraipena egitea.</li> <li>• Koordinatzaileentzako eta Gradu ikasleentzako prestakuntza ikastaroak proposatzea.</li> <li>• Moduluen eta modulu lanen funtzionamendu egokia bermatzea.</li> </ul>	<p>irakasle guztiei, titulazioaren koordinatzaileei eta Irakaskuntzaren Koordinaziorako Dekanordeari bidaltzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Modulu-lanak ebaluatzen aukeraturiko ebaluazio-lana koordinatzea.</li> <li>• Beharrezkoa balitz, irakasleekin batera modulu-lanak berrikusteko data zehaztea, .</li> <li>• Notak eta berrikusketa data egelan argitaratzea (beste irakasle baten laguntza eskatuz, beharrezkoa balitz).</li> <li>• Ikasleen ebaluazio galdetegien emaitzak aztertzea.</li> <li>• Modulua eta modulu-lana baloratzeko saioak programatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bileretako aktak berrikustea eta harturiko akordioak eta konpromisoak errespetatzea.</li> <li>• Ikasleen tutoretza egitea, irakasleek adostu duten moduan.</li> <li>• Entregatu beharrekoak zuzentzeko eta ikasleei feedbacka eskaintzeko ezarritako epeak errespetatzea .</li> <li>• Lanak zuzentzea eta diziplinarreko ebaluazio-saioetan parte hartzea.</li> </ul>
--	---	--

## **2. Eranskina. Bilera eraginkorrak ahalbidetzeko gomendioak**

### **Garatu beharreko alderdiak**

- Bileraren helburuak planifikatzea.
- Gai-zerrenda zehaztea, bere edukia izango duten denbora aintzat hartuz zehaztuz.
- Deialdia aurrerapen nahikoarekin egitea (bilera hasteko eta amaitzeko ordua zehaztuz). Ordu eta erdiko bilerak egitea gomendatzen da.
- Aztertuko diren dokumentuak edo materialak bilera hasi aurretik bidaltzea.
- Moderatzaile bat izendatzea.
- Eztabaida mugatzea eta arreta-galtzeak saihestea.
- Bertaratutakoen parte-hartzea sustatzea.
- Ideien alderatzea sustatzea.
- Bertaratuen arteko liskarrak saihestea.
- Bilera, etorkizunean landu beharko diren ekintzen programazioa zehaztuz amaitzea.
- Bileraren akta idaztea (bertaratuek txandaka jaso beharko lukete akta, ahal dela).

### **Saihestu beharreko alderdiak**

- Bertaratutakoek hitza hartzeko txandak monopoliza ez dezaten saiatzea: hitza hartzeko txandak monopolizatzen badira beste lankide batek ez du hitza hartzeko aukerarik izango.
- Besteen esku-hartzeak eteten ez direla saiatzea: bestean txanda errespetatzen ez duen orok bere txanda ez errespetatzea merezi du.
- Beren arteko solasaldiak saihestea: marmarioak eta ahopeko solasaldiek irakasleen arreta galarazten dute eta eztabaida desbideratzen dute.

### 3. Eranskina. Etengabeko ebaluazioari uko egiteko inprimakia



#### Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera Irakaslearentzako frogagiria

Izena:  
Abizenak:  
NAN:  
Irakasgaia:  
Kurtsoa:

Uko egiten dio ohiko deialdian etengabeko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izateari  
Eskatzen du ohiko deialdian azken ebaluazio sistemaren

bitartez ebaluatua izatea. Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen

sinadura:

Data  
:



#### Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera Irakaslearentzako frogagiria

Izena:  
Abizenak:  
NAN:  
Irakasgaia:  
Kurtsoa:

Uko egiten dio ohiko deialdian etengabeko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izateari

Eskatzen du ohiko deialdian azken ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea. Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen  
sinadura

